

2018ko ekainaren 29a, ostirala

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

3379

10/2018 DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, lehendakariarena, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariordea izendatzeko dena.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 19. eta 20. artikuluetan agindutakoaren arabera, eta lehendakariordea izendatzeko epaitegi horrek 2018ko ekainaren 21ean egindako osoko bilkuran erabakitako proposamena onartuta,

José Angel Quintanilla Angulo jauna izendatzen dut Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariorde.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 21ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.